



A ETA B ?



Oihana
Iguaran
Barandiaran



Doinua:

Herri txikien negu gordina

Zortziko handia

Ikasgelan A eta B gisan bereizita mutil / neska bitik batean sartu beharrak eragiten digu kezka moldean ezin kabitu eta sentitzen gara gainezka... Saillkapenera egokitzea derrigorrezkoa ez da.

Laida da neska pilotaria ta ditu esku abilak nahiz partidutan animo asko eskaini bere koadrilak Laidaren ertza ez du onartzen nesken molde borobilak Marimutila dela esan dio bere gustuko mutilak.

Martin dantzari arinena da gaitasun okerra ote? Ez da gelako beste mutilak diren bezain gizonkote moldez kanpoko zaletasunak bihurtzen dira barrote berak gozatzen duenagatik barre egiten diote.

Jarrera horrek gela osora dakar mila baldintzapen besteek kezka ikusten dute zigor hori zein litzakeen. Ez da erraza beti besteek nahi duten hori izaten... Euren burua ukatzen dute besteek onar ditzaten.

Ausardia ta indarra dira arrei dagozkien aipu emeak xume eta goxoa berez izan behar baitu... Zergatik gure itolarrian besteen hatsa epaitu? Besteiei lotzen diegun sokak gu ere estutzen gaitu.

Jende erreal gutxi sartzen da zaldunean ta printzesan ta beste batzuk neska zein mutil diren ere ezin esan ikas dezagun errespetua izaten bizikidetzan bere neurriko moldea zein den norberak hautatu dezan.



Guri ere debekatu al digute zerbait neska edo mutila izateagatik?

Gure gizartean zer dago gaizki ikusia neskek egitea? Zer dago gaizki ikusia mutilek egitea?